

Evangelio de San Mateo

traducido al vascuence roncalés de Vidangoz

por

D. Prudencio Hualde Mayo

Jesu Cristo gore Jainaren
Evangelio Sainiua segun San Mateoc

(CONTINUACIÓN)

25.— Asqui daquiola discipulari izaitia tratatruc bere mais-
truaren guisa, eta. cerbuchariari bere nausiaren bicala. Etseco aitari
deitubalimadei icenez Beelzebub ¿zomat obro bere menorer?

26.— Baya correngatic ezdazaceci ecun lotsa, ceren deusere ez
baitago estaltruc descubritruc edo aguertruc ezbiardionic izan, ez
ere alchatruc ssaquinic izan ezbiazdionic.

27.— Erraitendaidceidana gayaz erranzacei egunaren argüiara
eta erraitendaidceidana biarriara predicazacei tejado gainetic, edo
lurrezco sabayetic.

28.— Deus lotsaric etzacei ecun corpizaren ilzaler eta arima il
ezdoqueiner; leinaz onqui lotsa ecunzaceo egor doquenari arima
eta corpiza iburniara.

29.— ¿Ezdia cola bi chori saltandrela bi, marabiditan, eta cala-
ric ere etaric bacocho ezdela eroren lurriara, disponitan eztion bi-
tartig ssen Aitac?

30.— Ssaurien buruco biluac ere daude guciuac contatruc.

31.— Etzei bada certaz lotsa ecun: balio tzei ssec chori ain-
chec beino obro.

32.— En suma (sic); reconoci *eta confesatan* neiner oro Mesias-

taco gizonen antzinian, nic ere izaguntendaud eta declaratennaz edo izaguntra emonerinaz aren alte ene Aita ceurietan dagonaren antzinian.

33.— Baya ucatannindionari guizonen antzinian, nic ere ucatendaud ene Aita ceurietan dagonaren antzinian.

34.— Etzei cer pensa ni ssin nintzala baquiaren eragutra lurriara ez naz ssin baquiaren eragutra beicic guerra.

35.— Bada ssinnaz beressta semia bere aitarenganic eta alaba bere amarenganic, eta errena bere amaguiarrebaganic;

36.— Eta guizonaren enemiguac izandra bere etse berbereco personac.

37.— Amatandionac aitari edo amari niri beino obro ezdu meressi izan enia; eta amatandionac semiari edo alabari niri beino obro, eztare ezdu meressi izan enia.

38.— Eta ezdena cargatan bere cruchiarequi eta niri ssarre quitan ezda dino nitaz.

39.— Bere arimaren costuz conserbatandionac bere bicia, galendu; eta galezanac, bere bicia ene amorioz, bueltatenda erdétrá.

40.— Sser errecibitan dionac, niri errecibitandu; eta niri errecibitandionac, errecibitandu niri oiltunindion berari.

41.— Errecibitandionac ostatus profeta bati, profeta delato atencionez, errecibitendu profetaren premiau; eta ostatus artandionac justo bati, justo delacoz ecunendu justuaren saria edo recompensa.

42.— Eta nor naidenec emonlezan edatra chiquerssco cuetaric bati ezbeicic basobat urotz ene discipulo delacoz arrazoinan, emoitandaideid nore itza ezdiola galten bere paquiua.

AMECA GARNEN CAPITULUA

Juan Bautistac oiltandu bere discipuluetaric bi Jesusen gana: Ocasionen conequin errancimaz Jesussec Juanen gainian bere entzunzaler: ciudade increduluac: Geinaren carga da suabe edo arin.

1.— Nola Jesusec acabatubaicion amoitiaz era custia cuec bere amabi discipuluer, partitucen cantic eracusseta predicataco beren ciudadetan.

2.— Baya Juanec entzun nola baicion prisionan Cristoren obra *marabillosuac* oiltucion bere discipuluetaric bi ari galteguitra.

3.— ¿Zu zreya *Mesias* ssinbiardiona edo bercebat esperatubiar-digu?

4.— Zoini Jesusec errespondituzabien: fan eta contazacei Juani entzuntzeina eta ecusitzeina.

5.— Utsiec ecustandei, mainquiuc erabiltandra leprosuac edo lepradunac baratandra ssain, sordunec entzutendei, ilac erresucita-tandra, Ebangeluaren berri ona emoitenda pobrer.

6.— Eta bienabenturatu arten ezdionac eneganic escandalozco ocasioneric.

7.— Cuec fanbaicoz, asi cen Jesus mintzatan Juantaz, eta erran-cion iriari: ¿Cer ecustra erquinzrei desiertuan? ¿caña aire guciue-tra mobitanden zomait?

8.— Berzala errandaztaceid ¿Cer ecustra erquincintzein? ¿guizon-bati beztitruc arropa delicatubaequin? Badaquicei cola beztitan-drenac, daudela erreguen palaciuetan.

9.— Azquenian ¿Cer erquinzrei ecustra? ¿Zomait Profeta? Cori bay, nic aseguratandaiceid, eta orainore anich obro ecic Profeta.

10.— Bada hura da nortai escribitruc baitago: Mira edo beira-zazu nic oiltanduala ene ainguriua zare presenciaren antziniara, zoin fanenbaita zure antzinetic disponentandaizularic bidia.

11.— Eguiaz erraitendaiceid emazten semen artian ezdela sortu baco chic Juan Bautista beino andiago aren beino andiago izanic ere, chiquerrago dena ceurien reinuan.

12.— Eta Juan Bautistaren tempratic presentiarino, ceurien rei-nua alcanzatanda indar biciz, eta indar bici caur eguitendeinec bapanac berarequin, dra arrapatandeinac.

13.— Ceren Profeta guciuec eta Leguiac Juantra draino erran-cein antzinetic guero eguitu biarciona.

14.— Eta entelegatu nay batzei, hura bere da Elias ssin biarcion cura.

15.— Biarri dionac entelegataco, entelagatzala.

16.— Baya nori comparatendur nic guizaqui casta caur? Da asemejatruc morroin plaztan ssaseriric daudener, ceinec irago egui-tiari beren lagunetatic berce zomaiti, erraiten dabei:

17.— Cantatu daigucei canchoin alegre, eta ezrei lantzatu; can-choin triste, eta etzei nessar eguin.

18.— Gala da ssin baicen Juan cuasic ez baitu ssaten ez ere eda-ten, eta erraitendei: poseitruc dagu demoniuataz.

19.— Ssinda guizonaren Semia ssaten eta edaten baitu, eta errai-tendei: ona quemén goloso bat eta abinatu bat, publicanuen eta

bici gaisstotaco guenten adessquide. Baya sabiduria dibinua baratanda justificatruc bere sementaco.

20.— Gunian asi cen reconbenitan ciudadier zoinetan eguin baizren milagruetaric anich ceren ezbaicein eguin penitencia.

21.— ¡Ay zutaz, Corozain! ¡Ay zutaz Betzaida! Ceren Tiron eta Sidonen eguin balidra milagro ssetan eguin drenac, aspaldian eguinic ecunen ceila penitencia estantruc autsez eta cilicioz.

22.— Correngatic erraiten daiceid Tiro eta Sidon izanendrela tratatruc juicioco egunian rigore chiquiagoreguin ecic ssec.

23.— Eta zu, Cafarnaun ¿nasquiro pensatanzu biartzinala igan ceuriarartio? Izanenzra bai, abatitruc iburniaraino; ceren Sodonan eguin balidra milagro zutan eguindrenac Sodoma eltubada irainzaitequian orainore egunco egunian.

24.— Correngatic erraitendaizud, Sodomaco erria juicioco egunian izanendela gatzicatruc zu beino rigore chiquiago requin.

25.— Calato tempran clamatucion Jesusec, erraiten: Nic gloriñicatan deizud, ene Aita ceuri eta lurreco Geina, ceren, ecumbaidutzu estaltruc edo alchatruc gaiza cuec *sigloco* sabiuer eta prudenter, eta rebelatu baidutzu chiquercuer.

26.— Bai, ene, Aita *alabatruc* izantziala izandelacoz zore agradoz cola izanledin.

27.— Galza guciuac izari dutu ene Aitac ñore esquiuetan. Baya ñorc ere ezdu izaguntan Semia beicic Aitac; eta ñorc ere ezdu izaguntan, Aitac, beicic Semiac eta carc zoini Setniac nay ceuntu aldion rebelatu.

28.— Ssinztei enegana erabiltazrein guciuac agobiatruc trabaju eta carguequin, ceren nic alibiaten baizteid.

29.— Arzacei ene carga Ssaurien gainian eta icaszacei nitaz edo ene ganic, mansu eta umilde nazala biotzez; eta erdenentzei erreposiua edo soseguiua ssaurien arimentaco.

30.— Ceren suabe baita ene carga eta arin ene peciua.

AMABI GARNEN CAPITULUA

Defenditantu Jesucristoc bere discipuluac fariseuen murmuratione tic nescaneguna guardatiaren motiboz. Sontotandu esquiua idortruc edo esartuc zacan bati, eta endemoniatu eta utsi bati. Mintzatanda Espiritu Saintiuiaren contra den becatiuaz. Jonasen milagrua. Nini-bitac Eguerdi alteco Erreina.

1.— Tempra contan berian igartancelaric Jesus nescanegun batez alor erin altacabanetaric, bere discipuluac, ceilaric gose arizren buruca biltan, eta granuen ssaten.

2.— Eta caur ecustian fariseuec erranzabein beirazazu zore discipuluec eguitandeila ezdena edo eztena licito eguitia nescanegunian.

3.— Baya are edo arec errespondituzabein: etzey a leitu Dabidec eguinciona, bera eta laguntanzabeinac ecusizrenian gosiaz obligatrucc?

4.— ¿Nola sartucen Janguaicuaren etsian eta ssancion proposicionezco oguiac, licito ezena ssatia ezari eztare aren laguner, beicic cain Solo Sacerdoter?

5.— ¿Edo etzei leitu leguian nola sacerdotec trabajatandein elizan nescanegunian ta calaric ere ez becuric eguiten?

6.— Bada nic erraitendaiceid, quemen dagola bat eliza beino andiago baita.

7.— Ceren ssec onqui ssaguinbacinecei cer naidion erran: Nayo dur misericordia bino sacrificiua: secula ecinein condenaten inoconter.

8.— Ceren guizonaren semia dueño baita nescanegunaz ere.

9.— Partituz-relaric cantic, sartucen en sinagogan.

10.— Zointan zegon guizonbat baizacan escubat essartrucc; eta galteguin zabein Jesusi erdeiteco motibo ari acusataco, ¿licito zenez santotia nescanegunian?

11.— Baya are erranzabein, ¿cer guizon izanenda ssien artian zoinec ecutian ardibat eta ecortanbada caur cilobatian nescanegunian, etzan azca eta erquin campo?

12.— Bada zomat obro balio du guizon batec ecic ardibatec ¿cola bada licito da onqui eguitia ssei egunian.

13.— Gunian erranzaun guizonari: Luzazazu escu cori.

14.— Estiratucion eta baratucen cain sano nola bercia. Baya fariseuac erquitian ssuntatuzren maquinataco aren contra eta gal araztaco.

15.— Baya Jesus izaguntian caur, erretiratucen eta eri anich ssarrequitucizazcaun, eta er oro sontotuztion.

16.— Encargatan zabeilaric fuertequi ezlezabeila descubri.

17.— Conequin complitucen Issaiasen profecia zoinec erraitenbaitu.

18.— Checei cor ene cerbucharia zoini nic baitacad escogitrucc, ene maitia, zointan ene arima complacitubaita osoqui. Yzarendur aren gain ene Espiritiua eta anunciatendu justicia nacioner.

19.— Ezda porfiaten ñorequin ere; ezdu iragoric eguinen; ez ñorequere ezdu entzunen aren mintzua *edo irago eguitia* plaztetan.

20.— Ezdu zaticaten caña autseric dagona, eztare acabaten itiaz ergui oraino queitan dagona, triunfa araztandion bitartio *beraren causaren* justicia;

21.— Eta bere icenian izarendeï nacionec beren esperanza.

22.— Yzan zaun temprá berian eraguric endemoniatu bat utsi eta mutu, eta sontotucion, calaco guisan ari baicen gunian bertan ele erraiten eta ecustan.

23.— Zoinequin iri gucia baratucen arritruc eta erraitencion: ¿Caur dia ote Dabiden Semia, *Mesiasa*?

24.— Baya fariseuec caur entzutian erraitencein: conec eztu egoisstan demoniuac baicic Belcebuten obraz, zoin baita demoniuen principala.

25.— Gunian Jesusec izaguntanciolaric en pensamentiuac erranzabein: Reino beressiric dauden oro partido contrariotan, izanendra desolatruc; eta zoin naiden ciudade edo etse beressiric pensa moldetan ezdu irainen.

26.— Eta Satanasec egoichtan badu campo Satanasi da, berarequin contario, ¿nola bada biardu irain bere reinua? (Sigue el V.º 28 por equivocación.)

28.— Ceren nic egoichtan batud demoniuac Jangueicuaeren Espirituaren birtutez seguitanda *ciertoqui*, Jangueicuaeren reinua edo *Mesiasa* eltudela ssen gana. (Léase a continuación el V.º 27.)

27.— Ceren nic egoichtanbatud demoniuac Belcebuben icenian ssen semec cen icentan egochentey? Correngatic coriec berac izanendra ssen piezac edo juzgazaliac.

29.— Berzala errandaztaceid ¿nola da posible norbait sardein guizon balore anditaco etsian eta ebats dazan bere ontarzunac ezbadu leinic onqui lotan balientiari? Gunian alecunendau etsia saquia.

30.— Ezdagona ene fabore, dago ene contra; eta ezdionac enequin biltan barriatandu.

31.— Correngatic declaratandaiceid, cernaiden becatu eta cernaiden blasfemia parcatenzabeila guizoner; baya blasfemia Jangueicuaeren Espirituaren contra ezdela percaten cain facilqui.

32.— Guisaberian normaideni mintzaledinari guizonaren semieren contra percatenzau; baya mintzaledinari. Espiritu Saintiuaren contra *despreciatan aren gracia* ezdazau parcaten ez bici contan et ez bercian.

33.— Edo bada erranzacei arbolia dela on eta on aren frutiua; edo arbolia balimadacei gaisstotaco, ecunzacei ere gaisstotaco aren frutiua ya queta frutiua izaguntan baita arbolia calidadia.

34.— O bitorazco casta ¿no la da posible ssec aipazacein gaiza onic izaitian zrein guisa gassto? yaqueta mintzatanbaita ahua biotzaren abundatarzunetic.

35.— Guizon prestiuac erquitantu gaiza onac *bere biotzaren* ondo onetic, eta guizon gasstuac bere entraña gasstotic erquitantu gaiza gasstuac.

36.— Nic erraitendaiceid orainore ele auez cernaidden erranleceinetaz guisonec biardeila emon contu juicioco egunian.

37.— Ceren zore elengatic biar ecunentzu izan justificatruc, eta zore elengatic condenatruc.

38.— Gunian escribain eta fariseuetaric zomait mintzatu citzazcabein erraiten: Maistrua ecusi naiguinoquezu eguincinezan zomait milagro.

39.— Baya arec errespondituzabein: raza gaissto eta corrompitu conec escatanda prodigio bat; baya ezan *emon-en escatandena* baicic Jonas profetaren prodigiua.

40.— Ceren Jonas egoncen bicala ballenaren entrañan iruregun eta irur gai cola gizonaren semia egonenda irur egun eta irur gai lurraren entrañan.

41.— Ninibeco naturalac azcatendra juicioco egunian guizaqui casta conen contra, eta condenatendabei: ceren ec eguinbaicein penitencia entzutian Jonasen predicacionia.

42.— Eta conen guciarequi quemena dagona, da Jonasen beino obro edo obrotaco. Eguerdialteco erreina eguinenda acusazalia juicioco egunian guizontarzun casta conen contra eta condenatendau: cerengatic ssimbaicen lurraren bazterretaric etzutaco Salomonen sabiduría. Eta conen guciuz quemena tzei Salomon beino obro dena edo obrotaco dena.

43.— Erquindenian Espiritu ciquina zomait guizontaric, erabiltanda can quemena lecu idorretaz chercatan non eguin asiento, conseguitubaguetaric.

44.— Gunian erraitendu: bueltatennaz ñore etse erquinnazaniara; eta bueltatian artra, erdeitandu desocupatruc onqui egortruc eta alajatruc.

45.— Conequin faitenda eta artandu berarequin berce zazpi espiritu, berarenbeino gasstuago, eta sartian can eguitendei mansione. Zoinequin guizon caren azquen izan moldia, ssitenda izaitra

lastimosuago ecic leina. Cola aguitubiardu guenta casta, cain perberso coní.

46.— Orainore zagon hura platicatan iriari, nonta zauden campo bere ama eta bere anassac naizabeilaric ele erran.

47.— Zoinen gatic batec erranzaun: Chezu zore ama eta zore anassac daudezu cor campo zutaz galteguiten.

48.— Baya are erreponditian erraitanzaunari, replicatuzaun ¿nor da ene ama, eta zoin dra ene anassac?

49.— Eta señalatanztiolaric esquiuz bere discipuluac cuec, errancion, dra ene ama eta ene anassac.

50.— Cere nor naidenec eguinlezan, ene Ceurian dagón Aitaren borontatia, caur da ene anassa, eta ene arreba eta ene ama.

AMAIORGARNEN CAPITULUA

Predicandu Jesusec parabolatan eta desestaltan edo descubritan dazcabei apostoler. Erinzaliaren parabolac mostazaaren granuarna, orantzarna tesoro alchatiuarna perla preciosuarnat errede arrantzuz betiarna. Profeta honrericbague bere errian.

1.— Egun cartan, erquitian Jesus etsetic, zagon ssaseriric ichaso bazterrian.

2.— Eta ssuntatucen aren unguriuan guente concursobat cain andi izanbaicitzaun preciso sartia barcabatian eta artia asiento artan; eta iriguciuu zagon erribran.

3.— Zoini mintzatucen anich gaizataz parabolén medioz erraiten: Erquincen bein caraco erinzalebat eritra.

4.— Eta granuen barriatian zomait erorizren bidiari abaño edo bidiaren alta cara; eta ssinzren ceurico choriac eta ssanztein.

5.— Bercebanac erorizren aridoyetan, nonta baicegon lur chiqui eta bertan bunatuzren, lurra arin cegolaco.

6.— Baya iguzquia erquitari, erre eta essartuzren, ceren casi ezbaicein izorroric.

7.— Berce granobanac erorizren ssats artetan eta andituzzen, ssatsac eta sofocatuztein.

8.— Bercebanac azquenic erorizren lur onian eta emoncein frutu, non bat aric ein, non iroroguei eta non ogueita amar.

9.— Biarri dionac entelegataco, entelegatzala.

10.— Abañatanzrelaric guero bere discipuluac, galtegitanzabein: Cerengatic mintzatan daucei parabolatan?

11.— Zoinec errespondituzabein: ceren sser emonbaizaicei pribi legiua ceurico reinuaren misteriuac izaguntaco; baya er ezcitzabei emon.

12.— Cierta izaitian dionari *biardion guciua* emonenzaula *orainore obro*, eta egonendela sobratruc: baya ezdionari *biardiona ecun*, guenten zaula diona ere.

13.— Correngatic mintzatucitzabein parabolarequin ceren ec ecus-tandeilaric ezbaitei beiratan *ez baitei consideratan* eta entzutian ezbaitei beatan eztare entelegatan.

14.— Zoinequin, ssitenda cumplitra etan Ysaiasen profecia erraitembaitu: Entzunentzei ssaurien biarriequin, eta etzei entelegaten; eta obroago ecusiric ere ssaurien beguiequin, etzei beiraten.

15.— Ceren gogortubaitu iri conec bere biotza eta cerratu bere biarriac, eta estali bere beguiac etzan ecus berequin, ez entzun biarriequin ez ere entelega biotzarequin, lotsaz, conbertitian; nic emon-daudazan osagarria.

16.— Dichoso ssen beguiac ecustenbeitei, eta dichoso ssen biarriac entzuten baitei.

17.— Bada eguiaz erraitendaiceid profeta eta justo anichec ecun-ceila ansia ecustacu ssec ecustantzeina eta ezcein ecusi; eta entzuta-co ssecenzutentzeina eta ezcein entzut.

18.— Entzunzacei orai erinzalieren parábola.

19.— Nordaidenec entzuntzan Janguiecuaren reinuaren edo Eban-geliuaren elia, eta ez izartan artan bere atencionia, ssitenda espiritu gasstua, eta arrapatandu erinic izancen cura bere biotzian caur da erinic izana bidiari ssunto.

20.— Erinic izancena lur arridoyan da entzutandion cura Jan-gueicuaren mintzua eta presentian errecibitan gozorequin.

21.— Baya ezdubarnetic izorroric, baicic iraintandu chiqui; eta ssarrequitian tribulacionia eta persecucionia itzaren *edo Ebangeliu-aren* causaz, bertan conec cerbuchatandau escandaloz.

22.— Erintziua ssats artetan da entzutandiona Janguiecuaren elia, baya siglo contaco cuidaduec eta abratstarzunen engañuac sofocatandei eta baratanda fruturic emonbague.

23.— Alrrebesqui erintziua lur onian da entzutandiona etame-ditan Janguiecuaren mintzua eta producitandu frutu, parte bar-taric ein, parte iroroguei, eta parte ogeuitamar.

24.— Berce parabolabat proponituzabein, erraiten; ceurien rei-nua da urdutruc guizon erincionbati aci ona bere alurrian.

25.— Baya guizonac lo zaudelatic, ssincen aren enemigobat eta erincion cizaña gariaren erdian, eta fancen.

26.— Zagolaric ssa garia lastotan eta buruca erquin puntuan descubritucen guisa berian, edo aguerricara erquincen ssatsa.

27.— Gunian etseco nausiaren mitilac edo cerbychariac ssinzren aren gana eta arranzabein: Geina; ¿etzuniona erin aci ona zore alurrian? Noladu bada ssats? (a).

28.— Errespondituzabein: zomait gassqui nainionec erin aldu.

29.— Replicatucein cerbucharic: ¿naitziufanguitian ssorratra edo aren biltra? Zoini erresponditucion: ez egui ezdein arrancatian ssatsa arrancazacein arrequin ssunto garia.

30.— Eitzacein anditiala bata eta bercia eguitara bitartio, ceren eguitataco tempran nic erranenduz eguitarier: bilzacei leinic ssatsa eta artaz eguinzacei espal suarentaco, eta sarzacei guero garia ene graneruan.

31.— Proponituzabein berce parabolabat, erraiten: ceurien reinua da semejatruc mostazaco grano bati zointa artubaicion bere esquiuan guizon batec, eta ericion bere alurrian.

32.— Zoin da ecustian anisso ssen aci guciuen artian; baya anditian ssitenda izaitra andiago ecic eltzari guciuac eta eguitenda arbole: colaco guisaz ceurico abiac edo choriac sachtanbaitra eta erreposatan bere adarretan.

33.— Eta añaditucion berce parabola caur: ceurien reinua da semejantruc orantz artucionari emazte batec eta nastecatu iror almute irineguin nasia baratucen bitartio orantestatruc edo etsitruc.

34.— Gaiza cuec guciuac erranztion Jesusec iriari parabolatan, zoinac bague erabein predicatan.

35.— Cumplitanedaric Profetac errancia: Yriquendut ñore ahua mintzataco parbolequin: publicatendur gaiza *misterioso* egondrenac alchatruc mundiua criatruc izaner gueroz.

36.— Gunian Jesus, despedituz gueroz entzuten zaudenac, utzulicen etsera eta isariric aren anguriuan bere discipuluac, erranza-bein: esplicadazaguzu alurrian cizaña erinic izandenaren parabola.

37.— Zoinec errespondituzabein: Eriotandiona aci ona da guizonaren Semia.

38.— Alurra da mundiua: aci ona dra reinuaren semiac: cizaña dra espiritu malignuaren semiac.

(a)—Ssats, término genérico; en particular llaman *llollu*, *zalgue* a las yerbas ofensivas.

39.— Enemigo erincionac da diabiua: eguita da mundiuaren acabantza; eguitariac edo eguitazaliac dra ainguriuac.

40.— Eta cizaña biltanden guisa eta suan erretan, cola aguitenda mundiuaren acabanchan.

41.— Guizonaren Semiac oiltendu bere ainguriuac eta guentendei bere reinotic escandaloso guciuac eta becatiuaren obrazale dren oro.

42.— Eta egochentei suaren labiara: can izanenda nessar eta ortzez garrasca eguitia.

43.— Tempra berian justuec resplandezitendei iguzquiaren guisa beren Aitaren reinuan. Biarri dionat entelegataco, entelegatzala.

44.— Semejantruc da ere ceurien reinua alurrian alchatruc dagon tesoro bati, zoin erdeitannbadu guizon batec estaltandu *berriz* eta gogo edo gozoz beteric erdendionaz faitenda eta saltandu dacan guciua, eta erostandu alur cura.

45.— Ceurien reinua da guisaberian semejatruc mercatari tratatandion bati perla fintan;

46.— Eta eltanzaularic esquiuetra anich baliotaco bat, faitenda eta saltandu dion guciua, eta perla erostandu.

47.— Baitare semejatruc da ceurien reinua errede egorzale bati, zoin egochiric ichasoan biltantu casta guzutaco arrantziuac edo arrantziuac.

(Continuará)